



ARANTZako UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

2012KO APIRILAREN 4KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2012.04.04.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Imanol Artola Guridi jn.

Zinegotziak:

Jaime Iturria Mitxelena jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Azkeneko aktaren onespena.

2.-Alberto Echeveste Aizpiolea jauna: Lorbido Bordako obrak.

3.-Eskolako etxola berritzeko aurrekontua.

4.-Felipenbaita etxeko terrazari buruz.

5.-Eskolan obrak egiteko diru laguntza deialdia.

6.-Estatuak onartutako lan erreformari aurkako mozioa.

7.- Bateragune auziaren helegiteari buruz.

8.-ETB telebistari buruzko mozioa.

9.-Mikel Larretxea Bergara: txabola moldatzeko eskaera.

10.-Garapenerako Nafarroako Lan-ikidetzaren Funtsa: diru laguntza eskaera.

11.-AEK: eskola erabiltzeko baimen eskaera.

12.- PDR eta Agenda 21eko diru laguntza deialdia.

13.-Alkatearen ebazpenak.

14.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2012ko martxoaren 2an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin:

Berataratuen artean ez da agertzen Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna eta bera bileran zegoen.

Halaber argitzen da Arantzako dantzariari 500,00 euroko diru laguntza ematea erabaki zela. Horietatik 320,00 euro justifikatu ditu taldeak; ondoren gastatuko da gainekoa.

2.-ALBERTO ECHEVESTE AIZPIOLEA JAUNA: LORBIDO BORDAKO OBRAK.

Ikusirik Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunak aurkeztutako errekurtsua, 2012ko urtarrilaren 13ko akordioaren aurka.

Ikusirik Udaleko abokatuarekin egindako bilera eta bertan hartutako akordioa.

Aho batez,ERABAKI DUTE:

1) Udaleko abokatuei eskatzea Udaleko akordioarekin ados daudela adierazten duen idatzia aurkeztea.

3.-ESKOLAKO ETXOLA BERRITZEKO AURREKONTUA.

Ikusirik eskolako patioan dagoen etxolaren egoera, gehienbat teilatua.

Ikusirik herriko langileekin lana egiteko materialen aurrekontua (1.000,00 euro inguru).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Eskolako etxola moldatzeko lanak egiteko onartzea.

4.-FELIPENBAITA ETXEKO TERRAZARI BURUZ.

Ikusirik Felipenbaita etxeke jabeen idatzia etxeari terrazaren ordeztu teilatua jartzeko eta altxatzeko baimena eskatuz.

Prinzipioz Udaleko arkitektoak,Arantzako Arau Subsidiarioen arabera, aldeko txostena adierazi dute teilatua egiteari baino ez altxatzeko eskaerari.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Udaleko Arkitektoei txostena eskatzea obra horri buruz eta txostena eskatzaileei bidaltzea bertan agertzen dena betearazteko.

2) Akordio hau eskatzaileei eta Udaleko Arkitektoei bidaltzea.

5.-ESKOLAN OBRAK EGITEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.

2012ko martxoaren 16ko 54. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 64/2012 Ebazpena, martxoaren 7koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia onesten da, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) ikastetxe publikoak hobetu eta birmoldatzeko obra proiektuak gauzatu ahal ditzaten.

Ikusirik Arantzako Eskola Kontseiluan aztertu dela eskolako espazioa falta dela eta gela gehiago behar direla.

Kontuan hartuz ez dela denborarik gaia aztertzeke eta ikertzeke.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaia aztertzea hobeki eta aukera desberdinak ikertzea.

2) Aurten diru laguntzarik ez eskatzea.



ARANTZako UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@terra.es

6.-ESTATUAK ONARTUTAKO LAN ERREFORMARI AURKAKO MOZIOA.

Otsailaren 11n, Espainiako Erresumako Gobernuak lan-merkatuaren erreformarako Dekretua argitaratu zuen, Estatuaren Aldizkari Ofizialean. Erreforma hori langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da. Langile kopurua igotzeko aitzakiaren azpian, erreformaren benetako asmo bakarra ezkututzen da: soldatak eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak murriztea.

Kaleratzeko unean langileak dituen eskubideak muturreraino murriztu dira: joan zen mendeko baldintzetara itzuliz, Mariano Rajoyren taldeak doako kaleratze askea berrezarri du kontratuko lehen 12 hilabeteetarako, ia enpresa guztiek, % 99,23k zehazkiago, erabili ahal izango dutena. Hori gutxi balitz, Erresumako Gobernuak beste pizgarri bat eman nahi izan die enpresaburuei kontratu berri horren harira, kontratu hori indartzeko hobariak emango baititu. Ildo beretik, gainerako kontratuak ere murriztu egin dira, urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina desagertu egin baita, urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaineko kaleratzea orokortzearekin batera.

Erreforma horrek ezerezean utzi nahi du negoziazio kolektiboaren bitartez orain artean lortutako guztia. Horretarako, langileen ordezkariak eskuak lotu dizkie patronalaren aurrean: enpresa-hitzarmenei lehentasuna emango zaie sektore-hitzarmenen aurretik, ultrajarduera bi urtera bakarrik mugatu da, eta, hori gutxi balitz, enpresek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute, hitzarmena indargabetuta utzita. Gainera, enpresaburuek langileen lan-baldintzak nahierara aldatu ahal izango dituzte, ordutegia, kokapen geografikoa edota soldata aldatuz.

Erreforma ez da horretan geratuko, ordea. Gazteei ere eraso egingo die beste behin, batetik, gazteentzako prestakuntza-kontratua 33 urtera arte luzatuko duelako, 481€-ko soldatarekin, eta, bestetik, enpresei gizarte-kotizazioak barkatuko dizkielako. Bestetik, erreformaren eraginez, langileak laneratzeko kudeaketa pribatizatu egin liteke, zeregin hori Aldi Baterako Laneko Enpresen esku utzita.

Argi dago Euskal Herriko langileek ez dutela erreforma hori begi onez ikusten, inondik inora. Horregatik, argi eta garbi aldarrikatu behar dugu Euskal Herriko gizarte- eta ekonomia-politikak erabakitzeke dagokigun eskubidea, eta behar-beharrezkoa dugu eskubide hori baliatzeko tresnak berehala eskuratzea. Gure lan-eskubideak defendatzeko bide bakarra delako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, aho batez, **ERABAKI DUTE:**

- 1) Udal honek lan-erreforma salatu nahi dugu, enpresa-kudeaketa eskasaren eta ekonomia-eredu okerraren ondorioen zama guztia langileen bizkar gainean utzi nahi duelako.
- 2) Udal honek Espainiako Erresumako Gobernuari lan-erreforma lehenbailehen indargabetzea eskatzen diogu.
- 3) Udal honek lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzea eskatzen dugu, lan-merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeke aukera euskal herritarroi emango diguna.
- 4) Udal honek Euskal herriko legebiltzarkide hautetsiei kongresuan eta senatuan lan-erreformaren aurkako botoa ematea eskatzen diegu.

7.- BATERAGUNE AUZIAREN HELEGITEARI BURUZ.

Datorren martxoaren 28an, Auzitegi Gorenak Bateragune auziaren helegitea aztertuko du Madrilan. Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jaciento

hamar eta zortzi urtetako kartzela zigorrera kondenatu zituen Entzutegi Nazionalak ETAKoak izatearen akusaziopean.

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken hilabeteetan. Hamarkadak iraun dituen ziklo armatua atzean utzi eta bide politiko eta demokratikoetara sakonduz etorkizun aske bat eraikitzea da herri honek desio eta erabaki duena. Atzeraezina den bide hori abian da.

Garai berri hauek abia arazten, zuzeneko inplikazioa izan zuten gaur egunean kartzelan dauden bost kide hauek. Herri hau, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz, eraiki behar dela aldarrikatzea da beraiekin jardueraren zedea. Lan politikoa egiteagatik izan ziren atxilotuak, ziklo aldaketa ekarri duen lan politikoari ekiteagatik hain zuzen ere.

Ez Euskal Herritarren gehiengoak, ez eta nazioarteko iritzi publikoal ere, ez du ulertzen eta onartzen, Bateragune auzian kondenatutako bost Euskal Herritar hauek kartzelan izaterik. Ez du onartzen, sortu den egoera berri honen aurrean, espainiar estatuak urrats positiborik eman gabe gelditzerik.

Hau guztia kontuan izanik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek, herritarren gehiengoaren eskaera kontutan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaera egiten du.

8.-ETB TELEBISTARI BURUZKO MOZIOA.

Ikusirik ETB telebistari buruzko mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) ETB telebistari buruzko mozioa onartzea.

9.-MIKEL LARRETXEA BERGARA JAUNA: TXABOLA MOLDATZEKO ESKAERA.

Ikusirik Mikel Larretxea Bergara jaunak aurkeztutako eskaera, Ekaitza alderdian dagoen borda moldatzeko, ehiztariek erabiltzeko.

Kontuan hartuz borda lur ez urbanizagarrian kokatua dagoela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Mikel Larretxea Bergara jaunari jakinaraztea moldaketak Nafarroako Gobernuko baimena behar duela eta horretarako lanen dokumentazioa aurkeztu beharko dutela baimena eskatu ahal izateko.

10.-GARAPENERAKO NAFARROAKO LANKIDETZA FUNTSA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko idatzia, berak kudeatzen duen Garapenerako Nafarroako Lankidetzaren Funtsean parte hartzeko eta ekarpena emateko proposatuz.

Ikusirik Udaleko egoera ekonomikoa.

Kontuan izanik 2012ko aurrekontuan ez dela horretarako partidarik aurreikusi.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Garapenerako Nafarroako Lankidetzaren Funtseari ekarpenik ez ematea aipatutako arrazoiengatik.



ARANTZako UDALA

www.arantzako.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantzako.udala@terra.es

11.-AEK: ESKOLA ERABILTZeko BAIMEN ESKAERA.

AEK erakundeak udako ikastaroak antolatzeneko Arantzako eskolako 4 ikasgela (2. solairuko 3 gela eta irakaslearen gela) eta komuna uztailearen 2tik abuztuaren 26 arte erabiltzeko aurkeztutako baimen eskaera ikusirik.

Arantzako Herri Eskolako zuzendariak emandako aldeko txostena kontuan hartuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) AEK erakundeari 2012ko uztailearen 2tik abuztuaren 26 arte Arantzako eskolako 4 ikasgela eta komuna erabiltzeko baimena ematea, aurkeztutako eskaeraren arabera.
- 2) Eskatzaileari 300,00 euroko fidantza eskatzea.
- 3) Jakinaraztea ere euren ardura izanen dela eskola zaintzea eta beraien kontura izanen direla sortutako kalteak.
- 4) AEK erakundeari jakinaraztea garbiketa orokorra egin beharko dutela barnetegi bakoitzean, 15 egunetik.

12.- PDR ETA AGENDA 21EKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.

2012ko martxoaren 23ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 215/2012 Ebazpena, otsailaren 29koa, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia eta haren oinarri arautzaileak onesten dituen, 2012ko ekitaldian Tokiko Agenda 21eko ekintza planak (proiektuak edo ekintzak) ezartzeko.

Halaber 2012ko martxoaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da Cederna-Garalur elkarteko 2012ko diru laguntzak toki garapenerako (PDR 2007-2012 FEADER).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Bi deialdiak begiratzea eta diru laguntzak eskatzeko aztertzea.

13.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 13tik 24 arte).

14.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna ateri da bilera aretotik.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

15.-ZIRKOA JARTZEKO BAIMENA.

Arantzako Alkateak 16/2012 ebazpenaren bidez baimena eman zion Fischer zirkoari Arantzako aparkalekuan zirko emanaldia egiteko martxoaren 15ean.

Honi buruz, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Urtean bakarrik zirko bati baimena ematea emanaldia eskeintzeko; 50,00 euro kobratzea eta autobusa pasatzeko tokia uztea baldintza pean.

16.-TRAFIKOARI BURUZ.

Ikusirik kotxeak aparkatzeko orduan ez dela errespetatzen trafiko seinaleak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Foru Poliziei Arantzako kaleak kontrolatzea eskatzea, aparkalekuak eta seinaleak errespetatuz.

17.-ESTHER BURLADA AROCENA ANDREA: MAHAIK JARTZEKO ESKAERA.

Ikusirik Esther Burlada andreak aurkeztutako baimen eskaera, Aste Santuan etxeko atarian mahaiak jartzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Esther Burlada andreari mahaiak atarian jartzeko baimenik ez ematea.

18.-NAFARROAKO ELIKAGAIEN BANKOA: LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroako Elikagaien Bankoak aurkeztutako idatzia, laguntza eskatuz elikagaiak biltzeko.

Ikusirik Udaleko egoera ekonomikoa.

Kontuan izanik 2012ko aurrekontuan ez dela horretarako partiderik aurreikusi.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Elikagaien Bankoari ekarpenik ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

Bertzerik gabe, gaueko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Imanol Artola Guridi jn.

